



BIRIKLETA

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak behar bezela funtziona dezan zenbait jarduera burutu beharko ditugu, hauetatik garrantzitsuenak hurrengo hauek dira:

Lehenik, webgunea eta instagrameko kontua behar bezala martxan jarri behar dugu. Gure bezeroak, webgunearen eta instagram bitartez elkartearen berri izango dute. Nahiz eta gure ekintza urtean behin izan, gure sare sozialak eguneratuta mantenduko ditugu. Horregatik, elkartearen lan egingo duen lehenengo kideak komunikazio arloaren ardura izango du. Izan ere, Publizitatea eta Harreman publikoetan lizentziatuta da eta salmentetarako abilezia handia du.

Bigarrenik, BIRIKLETA EGUNA inizatiba jarriko dugu martxan, biriketako minbiziaren inguruko kontzientziazioa piztu eta minbizi honen ikerketarako dirua biltzeko asmoz. Ekintza hau etxeko txiki nahiz handiekin ospatuko dugun txirringularitza lasterketa solidarioa izango da. Horiek horrela, bigarren eta hirugarren langileen artean antolaketa-arloaz arduratuko dira. Hain zuzen, lasterketa antolatzeko bolondresak antolatu eta elkartearen bere osotasunean kudeatzea da hauen eginkizuna. Elkartearen aurrera eramateko beharrezkoa izango da bi kide hauen lana.

Azkenik, elkarteak ondo funtziona dezan nahitazkoa da diruaren kudeaketa ona. Horregatik, laugarren kidea finantza-arloaz arduratuko da, gure enpresak lortuko dituen diru-sarrerak eta gastuak kudeatuz. Ekonomian lizentziatuta da eta master bat du finantza munduan. Beraz, bere ezagutzak praktikan jarriko ditu elkartearen zerbitzura.